


# Hizkuntzen trataera integrala

(Hizkuntzen eta edukien trataera bateratua)



# Hizkuntzen trataera integrala

(Hizkuntzen eta edukien trataera bateratua)

## Arloek zertan laguntzen diote hizkuntzari?

- . Ingurune erreala sortzen
  - . Esperientzien eremu zabala, dibertsifikatua
  - . Testu genero ugari erabiltzen dituzte

Horretarako beharrezkoa: **Input ulergarria** erabiltzea

(Murgiltze programetan ekoizpen arazoak sortu ziren)

Horren aurrean **output ulergarriaren** beharrezana ikusi

(Ekintza komunikatiboarekin lotuta forma landu beharra)

Arazoek jarraitu, adib. Gramatikan.

Ikuspegia aldatu behar:

**Beharrezkoa da hizkuntza akademikoa menperatzea arloetako edukiak ikasteko**

# Zergatik da garrantzitsua?

1. Azken ikerketek horrela erakusten dute: Hizkuntzakoak ez diren arloen ingurukoek eta Hizkuntzen Didaktikaren ingurukoek
2. Metodologia egokia da: Hizkuntza Konpetentzia murritzeko ikasleentzat eta edukietan arazoak dituztenentzat
3. Aniztasun handiko geletan lan egiteko metodologia aproposa
4. Hizkuntza menperatzen ez duen ikasleak edukiak ikasteko itxaron beharrik ez
5. Bigarren-hirugarren hizkuntzetan konpetentzia handia lortzeko aukera hobetu orduak gehitu gabe

Hizkuntza hobeto ikasiko du , eta gaia hobeto ikasiko du:  
EDUKIA eta HIZKUNTZA txanponaren aldeak bihurtzen dira.

# Metodologiaren ezaugarriak 1

1. Ikaslearengan zentratutako irakaskuntza: Ikasle irakasle kooperazioa beharrezkoa
  - Gaiak eta atazak negoziatuz
  - Zehatzetik orokorrera joz (*landareak aztertu sailkapenak egiteko*)
  - Ikasleak ezagutzen dituen hurbileko egoerak erabiliz
  - Proiektuka lan eginez

2. Momentu bakoitzean laguntzarako aldamiajea erabiliz: ingurua eta edukia ulergarri egiten duena.
  - Testu errazagoak erabiliz, maila baxuagokoak...
  - Testuen ulermena landuz, ulermen estrategiak erabiliz
  - Linguistikoak diren, eta ez diren, estrategiak erabiliz
    - .errepikatu, parafraseatu, erraztu...
    - .adibideak eman, analogiak egin...
    - .irudiak erabili, keinu gehiago eginez...
    - .eskemak, grafikoak, buru mapak...

## Metodologiaren ezaugarriak 2

### 3. Irakaskuntza autonomoagoa eta interaktiboagoa eginez

- Ikerketa lanak bultzatu
- Esanahiaren negoziazioa dakarren jarduerak erabiliz
- Ulermen estrategiak erabiliz: ulermen galderak erabiliz, argibideak eskatuz, laburpenak eginez, gai nagusiak seinalatuz...
- Ebaluazio errubrikak erabiliz
- Autoebaluazioa eta koebaluazioa erabiliz

### 4. Baliabide ugari eta anitzak erabili, bereziki IKT baliabideak

### 5. Irakaskuntzaren enfokea aldatuz:

- Prozesuei eman garrantzia
- Egin beharreko atazak eman diezaiola garrantzia hizkuntza erabiltzeari
- Helburua lortzeko hizkuntza erabiltzera behartzen duten atazak aukeratu

Atazarik emankorrenak arloko edukia ikastea, eta H2 erabiltzera bultzatzen dutenak

# Trataera Integralaren Printzipioak eta oinarrizko alderdiak

1. Arloko edukia ikasteko hizkuntza erabiltzen dugu, hizkuntza bera ere ikasi behar:  
Ulermena eta Komunikazioa garatzeko
2. Gaiaren arabera ikasiko dugu hizkuntza mota:
  - Gaiaren hiztegi zehatza (landarearen zatiak...)
  - Diskurtso mota (azaldu, deskribapena egin, arguditu...)
  - Hizkuntza trebetasunak (entzun, hitz egin, idatzi...)
3. Jarioa gramatikaren zehaztasuna eta hizkuntzaren zuzentasuna baino garrantzitsuagoa izango da
4. Ondorengo elementuak izan beharko ditu saio on batek:
  - Edukia: Gaiaren edukia, trebetasunetan eta ulermenean garapena eraginez
  - Komunikazioa: Hizkuntza, arloa ikasteko erabiliz, erabileran ikasiz
  - Kognizioa: kontzeptuen eraketa (abstraktuak eta konkretuak), ezagupenak eta hizkuntza lotzen duten trebetasun kognitiboak garatuz
  - Kultura: Ikuspegi anitzak eta ezagupen konpartitua ikusaraziz

**Ondorioa: H2ko irakaslea eta arloetako irakasleen arteko koordinazioa, programatzerakoan eta baliabideak prestatzerakoan**

# Trataera integrala lantzeko baldintzak

## 1. Eduki akademikoak: (Zientzietan, esaterako)

- Kontzeptu akademikoak ikasi
- Prozedurak lantzea (Ikerketa, azterketa zientifikoa, teknikak, trebetasunak...) pisua hartu behar du.
- Jarrerak: Problema etikoen gaineko jarrerak, klima aldaketarekiko...


## 2. Hizkuntza akademikoa (erregistro zehatza du)

- Formalagoa, abstraktuagoa, zehatzagoa, kohesionatua, oso estrukturatua, koherentea... da
- Oso planifikatua
- Izan daiteke:
  - . Arloko hizkuntza espezifikoa (*hipotenusia, demokrazia, metafora...*)
  - . Oinarrizko pentsamenduak adierazteko (*hipotesia eta ondorioak formulatzeko baliabideak – arlo guztietarako balio duena-*)
  - . Gramatikarekin lotutakoa ere bai: *aurrizki eta atzizkiak...*
- Ekintzen %50a hizkuntzarekin lotua da: *Informeak bete, planifikatu, deskribatu, konparatu, sailkatu, azaldu...*

## 3. Kognizioa: Ikus Bloom-en Taxonomia

## Bloomen taxonomia digitalaren mapa

### Hitz gakoak



## Goi mailako pentsamendu gaitasunak

## Behe mailako pentsamendu gaitasunak

## KOMUNIKAZIO ALORRA

- Elkarlanean aritu
- Moderatu
- Negoziatu
- Eztabaidatu
- Iruzkindu
- Sarean elkartu
- Skype bidez bideokonferentzian aritu
- Berrikusi
- Galdetu/zalantzan jarri
- Erantzun
- Argitaratu eta blogeatu
- Sareetan parte hartu
- Ekarpenak egin
- Txateatu
- Postaz komunikatu
- Twitter/mikroblogen bidez komunikatu
- Bat-bateko mezularitza aritu
- Testuak idatzi

\* Letra lodiko aditzak aurreko bertsio berberak dira. Urdinez idatzitako aditzak, berriz, ingurune digitalerako egokitutakoak dira.

Jatorria: Eduteka  
<http://www.eduteka.org/>  
TaxonomiaBloomCuadro.php3

Itzulpena:  
Maite Gofñi  
@euskaljakintza



# Hizkuntzazkoak ez diren arloetan erabiliko den hizkuntza

## **Ikasten ari garen arloko hizkuntza:**

Hizkuntza akademiko orokorra:

*Ordezkatu, lerratu, lekualdatu, berresan, ugaldtu, erreproduzitu, ezaugarriak, tendentzia, urrundu, aldendu, alde izan, bat etorri...*

Arloaren hizkuntza espezifikoa:

*Hiztegi espezifikoa, egitura morfosintaktikoak  
Testu generoak.*

*Zentzua ematen duten patroiak: hizkuntza dentsitatea, abstrakzioa, ahotsa, tonua...*

Ez linguistikoak:

*Argazkiak, mapak, diagramak, formulak...*

## **Arloa ikasteko hizkuntza:**

*Deskribatu, definitu, laburtu, azaldu, justifikatu, argumentatu, demostratu, analizatu, ebaluatu...*

## **Arloa ikasterakoan ikasten dugun hizkuntza:**

Aurreplanifikatutako elementu lexikoak eta gramatikalak:

*Hizkuntzako curriculumak, ikasleen arazoak, lan egiteko irakatsi beharreko elementu linguistikoak...*

*Momentuko arazoak: zuzenketak*

# Unitate Didaktikoak prestatzerakoan aintzat hartzekoak

## **Arloko edukiak: (kontzeptuak, prozedurak...)**

*Input* ulergarritik abiatu behar dira.

Konplexutasun maila gradualekoak izan behar dute.

Ikasleei informazioa ulertzen laguntzeko estrategiak landu behar dira. (1 taula)

Elkarreragina eta esanahaia negoziatzen jarduteko aukerak eman behar dira

Askotariko Inputa, dibertsifikatua: (2 taula)

Edukiak hautatu eta sekuentziatu ikasleen hizkuntza gaitasuna aintzat hartuz. (3 taula)

## **Hizkuntza gaitasunak**

Ikasten ari garen arloaren hizkera:

Lexikoa.

Hizkuntza-egiturak.

Testu-generoak.

Ikasgaiko edukiak ikasteko hizkera.

Ulertzeko eta ekoizteko estrategiak.

Trebetasun kognitibo-linguistikoak: deskribatu, definitu, laburtu, azaldu, justifikatu, argumentatu eta frogatu.

Ikasgaia ikasiz ikas daitekeen hizkuntza (4 eta 5 taulak)

Forma negoziatzeko estrategiak (6 eta 7 taulak)

**Estrategiak eta trebetasun kognitibo linguistikoak (8 eta 9 taulak)**

**Kultur osagaiak eta testuinguru soziokulturala (10 eta 11 taulak)**

**Eduki akademikoak eta hizkuntza gaitasunaren erabilera (12 eta 13 taulak)**

## Ikasleei informazioa ulertzen laguntzeko estrategiak: (1 taula)

<p>Ikasi beharreko edukien eta aurre-ezagutzen arteko distantzia mozteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrejakintzak aktibatu, eta amankomunean jarri.</li> <li>- Aurreko lekzioak birgogoratu.</li> <li>- Aurretiz eman kontzeptu eta hiztegi garrantzitsua.</li> <li>- Dakizkigun edukiak berriekin lotu, erlazionatu.</li> </ul>
<p>Atazaren exigentzia kognitiboak murrizteko, eta apendizaiak errazteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Edukiak behar-beharrezkoa murriztu.</li> <li>- Informazioa era askotara eman.</li> <li>- Egin beharrekoa argi azaldu.</li> <li>- Atazak ondo estrukturatuta eta gradualki eman.</li> <li>- Ulermena errazteko andamiajea irakaslearen aldetik: errefortzuak, erantzun okerretan zentratu, gai nagusiaren sintesiak era ezberdinetan...</li> <li>- Imputa aberastu: errepikapenak, ikuspegi ezberdinetatik azaldu, adibide ugari erabili...</li> <li>- Ulermena, edukiena zein hizkuntzarena, ziurtatzeko estrategiak erabili: galderak sarritan egin, laburtzea eskatu, hitz gakoak definizioak eskatu era desberdinetara, adibideak jartzea eskatu...</li> </ul>
<p>Atazaren exigentzia linguistikoak murrizteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurreikusi eta aurretiz landu, edo era berean, edukien exigentzia linguistikoak.</li> <li>- Hizkuntza ikasleari egokitu: astiroago, minika gehiago...</li> <li>- Estrategiak erabili kontzeptuak hobeto uler diztaten: hizkuntza abstraktua saihestu, grafikoak erabili, antolatzaile bisualak, diagramak, keinuak...</li> </ul>

## Askotariko Inputa, dibertsifikatua: (2 taula)

Testu multimedia, hipertestuak, bideokonferentziak, testu prozesatzaileak, datu baseak, programa grafikoak, internet, telefonia, DVD, Sakelakoa, MP3...

**Edukiak hautatu eta sekuentziatu ikasleen hizkuntza gaitasuna aintzat hartuz.**

### Eduki motak, hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta (3. taula)

A. Hizkuntzarik gabe garatu daitezkeen edukiak: Gorputz Heziketa ariketa bat. Marrazketa bat egitea, ...

A. Hizkuntza figutaribo bidez garatu daitezkeen edukiak: mapak, grafikoak, taulak, diagramak...

A. Hizkuntza espezializatua behar duten edukiak: ekuazio matematikoak, formulak...

A. Diskurtso bidez eraikitzen diren edukiak: demokrazia. Iraultza... bezalako kontzeptuak.

### Arloak ikasiz, ikas daitekeen hizkuntza: (4 taula)

Hizkuntzako curriculuma	H2ko curriculumak aurreikusten badu konparatiboak, superlatiboak... ikasi behar dituztela, animalien gaineko unitatea landu genezake: lehoia tigrea baino handiagoa da...
Ikasleen zailtasunak	Ikasleek orduekin arazoak dituztela ikusten badugu, janarien inguruko unitatea prestatu genezake: goizeko 9etan gosalduta egiten dut, hamabi t'erdietan bazkaldu...
Gai berrietarako behar dituzten edukiak	Baldin badakigu lehen mailako hurrengo gaia garraiobideak direla, matematikako saio batean hiztegi hori landu genezake: zenbat guraso joaten da trenez/atobusez... lanera...

## Unitateetan txerta daitezkeen hizkuntza-edukiak: (5 taula)

<b>Diziplina edukietan txertatuak</b>	<p>1-Errutinak erabili (klasera sartzerakoan...) ahozko testu mota batzuk lantzeko.</p> <p>2-Jarduera batzuk prestatu non hizkuntza edukia beharrezkoa izango den arloaren edukia eraikitzeko.</p> <p>3-Jarduerak diseinatu gramatika arloa zehatz batzuk lantzeko: lehenaldia lantzeko aurreko egunean egindakoa azaldu behar. Geroaldia lantzeko matematikako problemen enuntziatuak...</p> <p>4-Azken ekoizpen bezala edota ardatz bezala, trebetasun edo gaitasun kognitibi-linguistikoak erabili, eta testu motak</p> <p>5-Unitate baten edukiak lantzerakoan jarduera gramatikal-diskurtsiboak, edota informazioa prozesatzekoak erabili.</p> <p>6-Lan bat egin ostean, lan horren inguruan hizkuntzaren gaineko hausnarketak egin.</p>
<b>Gelan elakarrekintza bidez garatzeko.</b>	<p>1-Ikaskari aukera ugariak eta desberdinak eman besteekin interaktuatzeko : talde mota ezberdinak...</p> <p>2-Ikaskari era askotako galderak egin eta denbora eman erantzuteko.</p> <p>3-Animatu ikasleak erantzun osatuagoak eman ditzaten.</p> <p>4-Erabili beharreko hizkuntza zuzenaren modeloak eman.</p>

## Forma negoziatzeko estrategiak, erantzun zuzena baitan daramatenak. (6 taula)

Zuzenketa, azalpenarekin	Irakasleak zuzendu egiten du ikaslea, zer esan duen txarto jakinaraziz.
Berriz formulatzea	Ikasleak esandakoa, edo zati bat errepikatzen du irakasleak, eta ikasleari zuzentzeko eskatzen dio.

## Forma negoziatzeko estrategiak, erantzun zuzena baitan EZ daramatenak. (7 taula)

Galdera egin,	Parkatu, zer esan nahi izan duzu?
Ohar metalinguistikoak	-Komentario metalinguistikoak: <i>akats bat dago. Zuzen dezakezu? Horrela ez da esaten euskaraz...</i> -Informazio metaling: <i>plurala da.</i> -Galdera metal: <i>plurala da?</i>
Era zuzena lortu	-Galderen bidez: <i>nola?, horrela esaten da euskaraz?</i> -Ez da..... ; da.....! -Birformulazioak: <i>esazu berriz, beste era batera.</i>
Akatsaren errepikapena	Irakasleak akatsa duen esaldia errepikatzen du, tonu bereziarekin.

## Trebetasun eta estrategia kognitiboak: (8 taula)

Trebetasun kognitiboak	Identifikatu, sailkatu, konparatu, erlazionatu... predizkioak egin, hipotesiak formaluatu, adibideak eman...
Informazioa prozesatzeko estrategiak	Informazioa bildu (aurkitu, aukeratu, baloratu), prozesatu (antolatu, reformulatu, ber-elaboratu, berregin...) eta komunikatu.
Ikasteko estrategiak	Galderak egin, argitasunak eskatu, arau bat aplikatzeko eskatu, fokalizatu interesa elementu batean (hitza...), helburuak errebisatu, errekurtsioak erabili (internet, hiztegiak...) apunteak hartu, talde lanean parte hartu, antolatzen ikasi...

## Trebetasun eta strategiak Unitateetan txertatzea: (9 taula)

	Aurreikuspenak egin...
	Estrategia: <ul style="list-style-type: none"><li>- Prestatu.</li><li>- Aurkeztu.</li><li>- Praktikatu.</li><li>- Autoebalatu.</li><li>- Hedatu.</li></ul>

## Hizkuntzen arteko aldeak ikuspegi semantikotik (10 taula)

<b>Numeralen egitura ezberdinak</b>	<b>Catalá: noranta-cinc</b> <b>Français: quatre-vingt-quinze</b> <b>Euskara: laurogeita hamabost</b>
<b>Hizkuntza batean termino opakoak, bestean transparenteak</b>	Colporteur: (frantsesa) venedor ambulante (catala)
<b>Prespoektiba semantiko ezberdina</b>	Aillar una incognita (catala) Despejar una incognita (castella)
...	...

## Curriculumaren kultura osagaiak: (11 taula)

<b>Ingurune geografiko eta soziala</b>	<b>Ibaiak, mendiak... jai popularrak...</b>
<b>Historia</b>	Pertsonaia historikoak, datu historikoak...
<b>Sinbolo kulturalak</b>	Banderak, keinuak, animalia edo landare batzuen sinbologia...
<b>Produktu kulturalak</b>	Arte Musika Literatura Kultura tradizionala ...
<b>Praktika kulturalak</b>	Agurtzeko formak, kortesia formulak, ohiturak, janaria...



## **Ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-jarduerak burutzeko aukera ematen duten zenbait bukaerako ekintza (12 taula)**

<b>Ahozko dokumentuak</b>	<b>Ahozko azalpenak, debateak, antzezpenak...</b>
<b>Idatzizko dokumentua</b>	Txostenak, muralak, albumak, panfletoan, foileto informatiboak, kartelak, instrukzioak...
<b>Multimedia dokumentua</b>	Bideoa, PPT, Web orriak...

## **Unitate Didaktikoak antolatzeke zenbait aukera (13 taula)**

<b>Parte hartze unitateak</b>	<b>Unitate didaktikoak, sekuentzia didaktikoak, atzak eta proiektuak</b>
-------------------------------	--